

**TRATU EZBERDINAK, DENA ONAK****3. Arrakasta bai, arrastaka ez!**

Arrakasta lortzeko ez dago arrastaka ibili beharrik! Nolabait esateko, besteek gu onartzea eta balioestea da arrakasta. Kontua ez da, ordea, besteen gogoko izatea, gure mugak hobeto disimulatzea edo komeni zaigunean sentimenduekin itxurak egitea. Hori baino gauza sakon, apal eta nobleagoa da.

Pertsona gisa (etxean, lanean, lagunekin) arrakasta izateko modurik onena da pertsona irekia, tolerantzia eta besteek gertatzen zaienaz interesatua izatea. Horixe baino ez da. Pertsonarentzat atsegingarri da nork bere baitara begiratzea eta nor bere buruarekin gustura sentitzea, nor bere izaerarekin, pentsaerarekin eta portaerarekin konforme izatea.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  ariketa egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiten ohitura har dezaten.

**HELBURUAK**

- *Arrakasta* hitzak definizio bat baino gehiago dituela jabetzea.
- Pertsonatik pertsonara *arrakasta* hitzaz ulertzen duguna alda daitekeela ikustea.
- Pertsona arrakastatsua izateko zein bidetatik jarraitu beharko genukeen ondorioztatzea.

**GARAPENA**

Lehenik eta behin, **banaka**, ikasle bakoitza beretzat arrakasta zer den adierazten saiatuko da, baita arrakasta zein arlo edo esparrutan izatea nahi lukeen ere.

Ondoren, irakasleak “Arrakasta (A)” eranskinean esaldiz betetako fitxa bana banatuko die ikasleei. Esaldiak banan-banan irakurri, eta horiek (nork bere ustez) egia ala gezurra diren esan beharko dute ikasleek. Esaldian adierazten dena arrakasta izateko garrantzitsua dela uste badu, esaldi hori egia dela esango du ikasleak; aitzitik, esaldiak adierazten duenari hain garrantzitsua ez dela irizten badio, gezurra dela jarriko du.

Ondoren, ikasleak **talde txikitan** jarriko dira. Gerta daiteke sexuen arabeko generoak eragina izatea arrakastaren inguruko iritzietan. Hori konprobatzeko, sexuaren arabera bereiziak egin daitezke taldeak: mutilen taldeak eta nesken taldeak. Taldekide bakoitzak eman dituen erantzunen berri emango die gainerakoei: zein diren, bere ustez, egia diren adierazpenak, hain egiazkoak ez direnak, gezurrak direnak...

Bukatzeko, bakoitzak berea azaldu ostean, guztien artean garrantzizkoenak zein diren adostuko dute eta garrantzi-mailaren arabera sailkatuko dituzte. Horretarako “Arrakasta (B)” eranskinean duten piramidea bete beharko dute, piramidearen oinarrian garrantzi gehien duten alderdiak jarri, eta puntara gerturatu ahala, hain oinarritzako (garrantzirik gabekoak ez, ordea) ez direnak jarri.

Ondoren, **talde handian**, talde txiki bakoitzeko bozemaileak taldean osaturiko piramidearen aurkezpena egingo du eta adosteko izan duten zailtasunak eta zalantzak komentatuko ditu.

**Talde handian**, kontuan izanik helburua zela arrakasta hitzak definizio bat baino gehiago dituela jabetzea, pertsonatik pertsonara *arrakasta* hitzaz ulertzen duguna alda daitekeela ikustea eta pertsona arrakastatsua izateko zein bide jarraitu beharko genukeen ondorioztatzea, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:



## GURE ARTEAN ONDO KONPONTZEN!

- Zer egin dugu ondo?
- Zer hobetu behar dugu?

Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraziko die.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Eranskina: "Arrakasta (A eta B)"

**Arrakasta (A)**